

MOZIOA

Urtetan mobilizazio ugariak egin eta bi greba feminista izan ondoren, kaleetako aldarria argia da, erabatekoa: gure gizarteak justizian eta demokrazian aurrera egin dezan, beharrezkoa da printzipio eta aldarrikapen feministak egitura eta politika instituzionaletan txertatzea. Beharrezkoa da eraldaketa erradikalak gauzatzea, erreproduktzio sozial jasangarria politika horien erdigunean jartzeko kapital-metaketa alde batera utzita, azken horrek gehiengo sozialen bizi-baldintzak prekarizatzen dituelako eta natura merkantilizatu eta esplotatzen duelako, etorkizuneko belaunaldien biziraupena arriskuan jartzeraino.

Beharrezkoa da, behingoz, emakume guztien indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea lehentasun politiko bat izatea. Beharrezkoa da instituzioek interpelazio hori gure gain hartzea, eta, gure ordezkartzari erantzunez, herrialde honetako herritar guztiak (guzti-guztiak, salbuespenik gabe) hobeto bizi daitezen gure esku dagoen guztia egin dezagun. Ez digute eskatzen argazki gehiago egitea eta asmo-adierazpen soilak adostea, ezta desparekotasunen sustraiei heltzen ez dieten makillaje-politikak planteatzea ere: aitzitik, eskatzen digute guztionak diren baliabideak erabil ditzagun emakumeen eta gizonen artean dauden sakoneko desparekotasunei aurre egiteko, inor atzean utzi gabe, lan-errealitatearen, arrazaren, sexu-desiraren orientazioaren, administrazio-egoeraren, adinaren eta beste edozein arrazoiren arabera sistemak ezartzen dituen diskriminazio eta zapalkuntza ugariei erantzunez.

Premiazko egoera horren aurrean, erabateko konpromiso bat hartu behar dugu gure udalerrietako pertsonekin, berdintasunaren eta justiziaren alde. Eta konpromiso hori har dezakegu, bakar-bakarrik, zeharo demokratikoak diren prozesuak planteatzen baditugu, non instituzioetatik "obeditzen gobernatuko dugun", emakume zapatisten hitzak erabiliz. Eta bakar-bakarrik lortuko ditugu gure bizitzekin zerikusia duten erabaki guztiak bizi garen tokian hartzen baditugu, gure lurraldeetan, gure herrialdean; hau da, subirano izan bagaitezke eta gure erabakitzeko eskubidea baliatzeko moduan bagaude.

Euskal herritar guztien erabakiak errespetatuko dituen esparru politiko eta instituzional bat eskatzeko eta eraikitzeke lanean jarraitzen dugun bitartean, subiranotasun feminista noranzko ugariko bide baten antzera agertzen da, emakume guztien askatasunak berreskuratzeko eta eskubideak zabaltzeko prozesu baten antzera, non egunero-egunero definituko eta gauzatuko dugun gure burua gobernatzeko zer egin nahi dugun eta gure herrialdearentzat zer bizi-baldintza nahi ditugun, guztiontzat, salbuespenik gabe, eta belaunaldi gazteenen etorkizuna hipotekatu gabe.

Beharrezkoa da maila instituzional guztietatik lan egitea, koordinatuta eta ikuspegi subiranista zabal batekin, eta lehentasunak identifikatuz politika feministetan aurrerapauso sendoak egiteko, eremu guztietan eskubide eta askatasunak zabaltzearen.

Instituzioetan ere feminismoa egunero defendatzen eta eraikitzen delako, gaurko egunak balio behar du, halaber, Udal honek politika feministen alde hartu duen konpromisoa berresteko, emakumeen erabakitzeko eskubidea abiapuntua, euren bizitzak zeharka hobetzera zuzentzen diren arlo guztietako politika feministekin, azpimarra berezia jarriz egoera zaurgarriago batean dauden emakume-kolektiboengan.

Horregatik guztiatik, Amasa-Villabonako udalak honako konpromisoak hartzen ditu:

1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren bidean aurreratzeko neurri sorta bat garatzea udalerrian, beharrezkoak izango diren baliabide guztiak bermatuz:
 - Udal aurrekontuen azterketa egitea, genero ikuspegitik, Udalak hartu dituen konpromisoen bideragarritasuna bermatuz.
 - Udal kontratazio publikoan klausula sozial eta genero klausulak txertatzeko plan progresibo bat diseinatzea eta abiatzea.
 - Udalerriko emakumeek egindako ekarpena balorean jartzeko memoria historikoa lantzea.
 - Genero ikuspegi batetik udalerriko zaintzen errealitatearen azterketa egitea eta errealitate hori hobetzeko neurriak martxan jartzea, besteak beste, ondokoak jasoz:
 - Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua ematen den baldintzak eta lan baldintzak duintzeko zuzenduriko neurriak proposatzea eta abiatzea.
 - Familian egiten diren zaintzen analisia (ume eta mendekotasuna duten pertsonena), gabeziak, bete gabeko beharrak eta hobetu beharrekoak identifikatuz eta aurre egiteko neurriak abiatuz, kasu:
 - Zaintzen beharrei erantzuteko udal espazioak egokitzea.
 - Zaintzarako pertsonen kontratazioaren gainean laguntza ematea.
 - Zaintza behar edo eskaintzen dituzten pertsonen arteko harremanak erraztea.
 - Nagusiki emakumeek egindako zaintza lanei balorea emateko sentsibilizazio jarduerak bultzatzea, baita gizonen erantzunkidetasunaren gainean kontzientzia hartzeko jarduerak ere.
 - Zaintza rolen gaineko emakumeentzako ahalduntze jarduerak abiatzea.
 - Gazteei zuzendutako rol berdinezaleen gaineko hezkuntza jarduerak bultzatzea, ahalduntze ikuspegi batetik.
2. Amasa-Villabonako kolektibo feministak edota emakume taldeak konpromiso hauen garapenean udalarekin elkarlanean parte hartzeko bideak irekiko dira, jarduera guztien diseinutik ebaluazioraino parte hartu ahal izateko, euren iritzia kontuan hartuz.
3. Amasa-Villabonako udalak, Aiztondoko mugimendu feministak datorren martxoaren 8aren bueltan antolatuko dituen ekimenekin bat egingo du publikoki eta herritarrei parte hartzeko deia luzatuko die.





8 DE MARZO DE 2020

MOCIÓN

Después de años de numerosas movilizaciones y dos huelgas feministas, el clamor en las calles es claro y rotundo, para que nuestra sociedad avance en términos de justicia y democracia es necesario que los principios y reivindicaciones feministas se incorporen tanto a las estructuras como a las propias políticas institucionales. Es necesario que se den transformaciones radicales que pongan en el centro de esas políticas la reproducción social sostenible desplazando la acumulación de capital que hace más precarias las condiciones de vida de las mayorías sociales y mercantiliza y explota la naturaleza, arriesgando la supervivencia de las futuras generaciones.

Es necesario que de una vez el derecho de todas las mujeres a vivir vidas libres de violencias sea una prioridad política. Es necesario que desde las instituciones asumamos responsablemente esa interpelación y que, respondiendo a nuestro mandato, hagamos todo lo posible porque la ciudadanía de este país viva mejor, todas, sin exclusión. No nos están pidiendo que nos hagamos más fotos y acordemos meras declaraciones de intenciones, o que planteemos políticas de maquillaje que no van a la raíz de las desigualdades: nos están pidiendo que utilicemos los recursos que son de todas para hacer frente a las profundas desigualdades que existen entre mujeres y hombres, sin dejar a nadie atrás, atendiendo a las múltiples discriminaciones y opresiones que el sistema ejerce en función de la realidad laboral, la raza, la orientación del deseo sexual, la situación administrativa, la edad, etc.


Frente a esta realidad imperiosa, debemos adquirir un compromiso radical con las personas de nuestros municipios por la igualdad y la justicia. Y ese compromiso solo puede llevarse a cabo si planteamos procesos radicalmente democráticos en los que, como dicen las zapatistas, “governemos obedeciendo” desde las instituciones. Y solo lo conseguiremos si todas las decisiones que tienen que ver con nuestras vidas las tomamos allá donde vivimos, en nuestros territorios, en nuestro país; es decir, si podemos ser soberanas y ejercer nuestro derecho a decidir.

Mientras continuamos trabajando y exigiendo un marco político e institucional propio que respete todas las decisiones de toda la ciudadanía vasca, la soberanía feminista se dibuja como una vía de múltiples caminos, como un proceso en el que ir recuperando libertades y ampliando derechos de todas las mujeres, en el que ir definiendo y haciendo realidad, día a día, cómo nos queremos gobernar y qué condiciones de vida queremos en nuestro país para todas, sin exclusiones, y sin hipotecar el futuro de las generaciones más jóvenes. Es necesario trabajar desde todos los niveles institucionales, en coordinación y con una visión soberanista amplia, identificando cuáles deben ser nuestras prioridades para ir dando pasos firmes en políticas feministas que amplíen derechos y libertades en todos los ámbitos.

Porque el feminismo se defiende y se construye día a día, también en las instituciones, el día de hoy debe servir para reafirmar el compromiso que tiene este Ayuntamiento con políticas feministas que partiendo del derecho de las mujeres a decidir, se dirijan a mejorar sus vidas de forma concreta en todos los ámbitos, de forma transversal, y prestando especial atención a aquellos colectivos de mujeres en situación de mayor vulnerabilidad.

Por todo ello, el Ayto de Amasa-Villabona acuerda:

- 1) Desarrollar en el municipio una serie de medidas para avanzar hacia una igualdad efectiva de mujeres y hombres, garantizando todos los recursos para ello:
 - Realizar un análisis de los presupuestos municipales desde la perspectiva de género , garantizando la viabilidad económica de los compromisos adoptados por el Ayuntamiento.
 - Diseñar y poner en marcha un plan progresivo de integración de cláusulas de igualdad y otras cláusulas sociales en la contratación pública.
 - Trabajar la memoria histórica para visibilizar el aporte que las mujeres han realizado y realizan en el Municipio.
 - Realizar un análisis de la realidad de los cuidados en el municipio desde un punto de vista de género y poner en marcha medidas para su mejora, pudiendo recoger, entre otras:
 - La situación en la que se presta el Servicio de Ayuda a Domicilio y propuesta y puesta en marcha de medidas dirigidas a dignificar las condiciones laborales en las que se presta.
 - La situación de los cuidados realizados en el ámbito familiar (infantil y personas dependientes), identificando carencias, necesidades no cubiertas y áreas de mejora y poniendo en marcha acciones dirigidas a hacerles frente, por ejemplo:
 - Adaptar espacios municipales para el uso relacionado con los cuidados.
 - Facilitar información para la contratación de personal de cuidados.
 - Facilitar el contacto entre personas que necesitan u ofrecen cuidados.
 - Realizar acciones de sensibilización para poner en valor el trabajo de cuidados realizado mayoritariamente por las mujeres así como acciones de concienciación sobre la necesaria corresponsabilidad de los hombres.
 - Poner en marcha actividades de empoderamiento relacionadas con los roles de cuidado dirigidas a las mujeres.
 - Impulsar actividades educativas y empoderantes con la población juvenil sobre roles igualitarios
- 2) Se facilitarán vías para que las mujeres así como colectivos feministas del municipio participen desde el diseño a la evaluación de las acciones identificadas, debiendo tener en cuenta su opinión.
- 3) El Ayuntamiento de Amasa-Villabona se suma públicamente a las convocatorias realizadas en torno al 8 de marzo por el movimiento feminista de Aiztondo y hace un llamamiento a la ciudadanía para que participe en ellas.



Egiaztapen Kode Segurua / Código Seguro de Verificación: **SIERb5bc40fe-16a0-458c-b213-50a2a33cf25e**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://ust.gipuzkoa.eus?De=07510>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://ust.gipuzkoa.eus?De=07510>